

# Aurkezpena



Material hau egitea ezinezkoa izango litzateke **Alboan** fundazioko prestakuntza arloko pertsona boluntario, laguntzaile eta langileen laguntzarik gabe.



## Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

# 1. DBH-ko bigarren zikloan proposatutako hezkuntza materiala

Material honek DBH-ko ikasleekin eskubide eta betebeharren gaia lantzeko proposamen didaktiko batzuk ditu. Proposamen hau hiritartasun kontzeptua landu nahi den prozesu zabalago baten barruan kokatuta dago. Lehendabiziko urte honetan eskubide eta betebeharren gaia landuko da funtsezko lau ideia jorratzen saiatuz.

- Pertsona guztiok eskubideak ditugu.
- Guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak dira.
- Eskubideek betebeharrak dakartzate eurekin..
- Eskubideak zein betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan, hirian daude.

Material honekin DBH-n dugun helburu orokorra, hiritar moduan ditugun eskubide eta betebeharrei buruzko kontzientzia hartzea da, eta gure munduaren eraldaketa prozesuan, bidezkoago eta elkarkidetsuagoa den mundu bat lortzeko, protagonista izatea da.

Hezkuntza etapa honi dagokion kurrikulotik, ikerkuntza, analisia, kontrastea eta ebaluaketa biltzen dituzten jarduera desberdinak proposatzen dira, errealitatea eta gure jarreraren aurrean ahalmen kritikoa bilatuz, eta pertsona bakoitzak horren gain duen erantzukizuna onartuz. **Natur zientzien** arloan ingurugiroko oreka beharra lantzen da, eta aldi berean eskubide eta betebeharren arteko oreka ere; **matematikan** pobrezia adierazle bitartez, honek sortzen duen eskubide eza analizatzen da, eta teknologiarara sarbide eza ere; **musikan**, aniztasun eta aberastasun musikala eta migrazioaren gaia; **hizkuntza eta literaturan**, komunikazioa eta espresio askea praktikatzeko eskubidea eta zera errazteko betebeharra; **gizarte zientzietan**, gizon-emakumeen eskubideak gure nortasunaren eraikuntzan, eta europar hiritartasuna; **atzerriko hizkuntzan** interaktatzeko eskubidea eta pertsona guztien eskubide eta betebeharrak, ingelesez eta frantsesez dauden abesti biren bitartez, **erlijioan**, pertsona guztion duintasun propioa onartzeko beharra. Horrez gain, lehen zikloko proposamen didaktikoan **gorputz heziketa eta tutoretza/etika** arloetarako beste jarduerak ere daude. Azken kasu honetarako Batxilergoko materiala kontsulta daiteke.

Kurrikuluan proposatu diren helburuetatik, hezkuntzaren bitartez, errealitatearen hausnarketa eta analisia egiteko espazio bat izatea baimentzen diguten jarduerak proposatzen dira.

Material honekin lantzen diren helburu orokorrak ondokoak dira:

- Ikaskuntza adierazgarria erraztea, eduki eta informazioaren pilaketa gaindituz, hiritarren alorrean kokatzeko asmoz.



- Ahozko informazioa, ikonikoa, estatistikoa... lortu eta erlazionatzea, modu autonomo eta kritikoaz tratatzea, eta besteei modu antolatu eta ulergarrian komunikatzea.
- Simulaketa tekniken bitartez, ikusentzutekoen eta material grafikoaren bitartez pertsona guztientzat baliagarriak diren eskubideak bermaturik egotearen garrantzia esperimendatzea, kausa anitzek eragindako bazterkeria egoerak ukatuz: jatorri soziala, hizkuntza, kultura, sexua, arraza, pentsamoldea, etab...
- Komunikazio egoeratan parte-hartzea eta elkartrukea baimentzen duten arauak errespetatzea: entzutea, hitza errespetatzea, beste iritziak, etab.
- Patrimonio natural, kultural, linguistiko, artistiko eta soziala baloratzea eta errespetatzea, horien kontserbazio eta hobekuntza onartuz, gozamen iturri moduan estimatuz, eta garapen indibidual eta kolektiborako baliabide moduan erabiliz.
- Bakoitzaren ahalmenez kontziente izatea ingurugiroaren kudeaketan eta ingurugiro arazoaren konponbidean esku-hartzeko.
- Komunitatearen jardueretan erantzukizunaz parte-hartzea, eta bizitza sozialak eskatu eta onartzen dituen eskubide eta betebeharrak ekiteko prestatzea.

Azken finean, eraldaketa soziala lortzeko eta bidezkoago eta duinagoa den mundu baten eraikuntzan inplikatzeko baliagarriak diren ekintzak proposatzen dira bertan.

Azkenik aipagarria da, **Alboan** irakasleen esanetara dagoela aholkularitza moduan, honi buruz prestatzeko eta hezkuntza proposamen hau praktikan jartzen laguntzeko.

## 2. Zikloko irakasle eta gurasoentzako proposamena

Zikloan gai hori lantzeko, interesgarri deritzogu irakasleek beraiek zein gurasoek gaiari buruz hausnartzeko eta oinarritzko helburuak zehaztu eta ikastetxeko errealitatera egokitzeko materiala eta denbora izateari.

Horretarako, orientabide izan daitezkeen agiri bi aurkezten dira: Lehendabizikoan, “*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*” izenburuduna, hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren filosofia azaltzen da. Lortzeko apustua egiten dugun hiritartasun kontzeptua definitu egiten da eta zenbait hezkuntza estrategia zehazten dira.

Bigarrean, “*Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak*”, hezkuntza materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, karpeta honetan diren materialak eta poster, bideo, lehiaketak,



mahai-jokoekin osatuta hain zuzen, bai eta **Alboan**-en aholkularitza eta prestakuntza ere.

Agiri hauek prestakuntza saioetan oinarri izan dakizkieke irakasle zein gurasoei ikuspuntuak trukatzeko, tes-tinguru zehatzaren inguruko lehentasunak ezartzeko eta proposamenak osatzeko.

Ondoren, prestakuntzarako hiru saiotarako proposamena dugu gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin azaltzeko.

## 1. Saioa:

Aldez aurretik *“Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara”* agiria banatu da.

1. Talde dinamika: scrabble hiritartasun hitzari buruz.

- a. Irteten diren hitzak komunean jarri.
- b. Hitzoi lehentasuna eman.

2. Hiritartasuna agiriaren gaineko honako galdera hauek planteatzea.

- Agiriaren inguruko argitasunak edo komentarioak.
- Zer dakarkizu burura hiritartasunaren gaiak?
- Gaiaren diagnostikoa:
  - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
- Zein zerikusi du zure hezkuntza zereginarekin?
- Ezagutzen dituzun gaia lantzen duten proposamen eta ekimenak.
- Bururatzen zaizkizun zure hezkuntza praktikan beharrezko edo iradokitzaile izan daitezkeen proposamen zehatzak honako honi buruz:
  - Gaiak
  - Metodologia

3. Talde-lana eta komunean jartzea.



## 2. Saioa:

1. Taldeka, eta aurretik azaldutakoa kontuan izanik, hiritartasuna ikastetxean zein ikasgelan gaiari buruzko diagnostikoa egin.
2. Guztion arteko gaiari buruzko gaineko elkarrizketa.
3. Ikasturtea honetako gaiaren aurkezpena: eskubideak eta betebeharrak.

Agiriaren banaketa: "Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak" eta galdera eta iradokizunak.

### Agiria lantzeko kontuak

#### Gure ikasgeletara so eginez...

- Zein beste elementu sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten duzu zure inguruan? Zein alderdi positibo ikusten duzu gure munduan? Zein puntutaraino uste duzu baliagarri zaiela diagnostiko hau zure ikasleei? Uste al duzu betebeharrak eta erantzukizunak baino, eskubideak dituztela sentitzen dutela?
- Noiz igartzen duzu erantzukizunaren areagotzea zure ikasleengan? Zein egoeraren aurrean? Nola uste duzu susper daitezkeela erantzukizunak ikasleen artean?
- Ikasleekin arrazoitzen duzunean errespetua, guztien ongia eta elkarri zaintzearekin zerikusia duten kontuekin erantzule izan daitezen, zein argumentu darabilzu? Nola sentitzen zara zu diagnostikoaren aurrean? Funtsean, non kokatzen zara zure familian, ikastetxean, hirian, munduan..., zure eskubideen defentsa egiten edo zure erantzukizunak jokoan jartzen?

#### Geure buruari so eginez...

- *Neure betebeharrei dagokienez...*

Gu geu gara gure eskubide eta erantzukizunak noraino heltzen diren hobeto dakigunok, sarri askotan kontratuz eskatzen dena baino harago: Zein betebeharrei deriztet funtsezko garatzen dudan nire hezkuntza lanean? Zeintzuk daude nire "lan" betebeharetik haratago?

Eta hezkuntza komunitateko kide legez: Ze betebeharrak uste dit direla bete behar ditugunak? Nori dagozkio?

- *Besteen eskubideei dagokienez...*

"Eskubide" / "betebeharrak" bikotearen kontzientzia hazten ari da, eta egoera horretan berebiziko garrantzia dute besteen eskubideek (batez ere laguntza gutxien dutenak). Hezkuntza inguruan ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak, langileak, patronala..., horietaz guztietaz arituko ginatke. Zeintzuk dira euren eskubideak? (ohar zaitetz aipatu ditugun talde ezberdinez) Nola defenda ditzaket?

### 3. Saioa:

1. Taldeka, galderak komentatu eta ikastetxe zein hezkuntza zikloaren diagnostiko bat egin.
2. Guztien arteko elkarrizketa.
3. Funtsezko helburuak erabaki eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

## 3. Informazio gehiago lortzeko

Web orrialdeen zerrenda dugu hau informazio gehiago eskuratu eta eskubide eta betebeharren gaiarekin zerkusia duten beste bitarteko batzuetarako aukera izateko.

### Hezkuntza proposamenak dituzten orrialdeak

<http://www.derechos.net/links/esp/edu/> HEZKUNTZARAKO ESKUBIDE BEREZIA HEGOAMERIKATAKO HERRIETAN. LINK-AK IRAKASLE ETA IKASLEENTZAKO TRESNEKIN.

<http://www.derechos.net/edu/> HAURRENTZAKO LINK BEREZIAK.

<http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/sedupaz.htm> JOKO DIDAKTIKOAK DITU.

<http://www.hrea.org/> Ingelesez. HONAKO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA :

<http://www.amnistia.org.py/edu.html> NAZIOARTEKO AMNISTIAREN ORRIALDE HEZGARRIA.

<http://www.serpaj.org.uy/revista.htm> IRAKASLEEI BEGIRA.

<http://www.uca.edu.ni/koinonia/varios/ddhh.htm> GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA DU, HERRI BERTSIO BAT, BIBLIAREN AZTERKETA BAT...

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/4propostes/index-esp.html> GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAZ KONTZIENTZIA HARTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/musica/fichas-indice.html> GIZAKION ESKUBIDE ETA LIBERTATEETAN INSPIRATURIKO KANTA SORTA.

### Bitarteko interesgarriak dituzten orrialdeak

<http://www.acsur.org/>.

<http://www.derechos.net/esp/>

<http://www.eurosur.org/spa/derechos.htm>



<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/>  
<http://www.derechos.net/links/esp/foro/> EZTABAIDA FOROekin LOTURA.  
<http://www.derechos.net/links/esp/temas/>  
<http://www.derechoshumanos.org/> EZTABAIDA FOROA.

## Adierazpenak

<http://www.pnud.org.ve/idh/deberes.asp#01>. NAZIO BATUETAKO PROGRAMA. HEZKUNTZAREN INGURUKOA.  
<http://www.derechos.net/doc/dudh/> GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA IZAN ZENEKO 50. URTEURRENA. AZALTZEKO ETA IKASTEKO.  
<http://www.iepala.es/DDHH/> BOTEREAREN TEORIAREN AZALPENA. NAHIKO ZEHATZA.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2_sp.htm) EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3_sp.htm) HAURRAREN ESKUBIDEAK.  
[http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74_sp.htm). GARAPENERAKO ESKUBIDEA.

## Eskubideak eta betebeharrak eremu ezberdinetan

<http://www.oas.org/SP/PROG/pg19-23.htm>. GIZAKIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN AMERIKAR DEKLARAZIOA.  
[http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos\\_y\\_deberes\\_alumnado.htm](http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos_y_deberes_alumnado.htm) IKASLEEK IKASTETXE BATEAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.  
<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/~29003397/estiloco.htm> IKASTETXE BATEKO IKASLE ZEIN GURASOEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.  
<http://www.internen.es/compositor/or/DCTS/Derechos.htm> IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ETA IKASTETXE BATEKO ELKARBIZITZARAKO ARAUAK.  
<http://www.comadrid.es/inforjoven/cridj/derdebe/derech.htm>. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.uah.es/organizacion/otros/derechosydeberes.shtm>. ALCALÁ-KO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.asamblea.gob.ni/constitucion/deberes.htm>. NIKARAGUAR PARLAMENTARIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.  
<http://www.cruzroja.org.ar/volu/debe.htm> ARGENTINAKO GURUTZ GORRIKO BOLUNTARIOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.



# *Hizkuntza eta Literatura*



**Alboan**

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA



## Helburuak

- Internet bidez ematen den informazio mota kritikoki ezagutzea.
- Bere muga eta gaitasunak baloratzea.
- Bidegabekeria egoera ezberdinak ezagutzea.
- Bidegabekerien aurrean zer edo zer egin beharra onartzea.
- Internet bidez eskuratutako informazioa aztertu eta laburtzea.
- Iritzi argumentatua egitea.
- Olerki bat aztertu eta interpretatu.

## Jarduerak

### 1 Jarduera:

#### “Internet: informazioa edo desinformazioa?”

**Deskribapena:** Interneterako sarbiderik bada, ikasleei “informazio askatasuna sarean” gaiari buruzko bilaketa egin dezaten eskatuko zaie. Zilegi ez bada, bilaketa eginda emango zaie. Ikasleei taldeka lan egiteko eta bilaketaren emaitzak aztertzeko: lortutako emaitza interesgarriak, irakurritakoaren laburpena, oinarritzko elementu eta argumentuak, etab. Taldeak gelan egingo duen azalpena prestatuko du:

Jarrera bakoitzaren aldeko argumentuak.

- Badira bateraezinak diren argumentuak? Eta bateragarriak direnak?
- Zer-nolako ondorioak dituzte argumentu ezberdinek?
- Zer-nolako ekarpena egiten du adierazpen askatasunak eztabaida honetan?
- Eta egiazko informaziorako eskubidea?
- Zer deritzozu gaiari?

Horren ostean, azaldutako jarrera ezberdinetan oinarrituriko debate orokor bat antolatuko da. Beste aldaera bat talde bi osatzearena da. Bat informazio askatasun handiagoaren aldekoa eta bestea askatasun horri mugak jartzearen aldekoa. Guztien artean erabaki daiteke moderatzaile eta animatzailea nor izango den eta debaterako funtzionatze arauak ezarri, edo bestela, ondoren, eztabaidatzen dakigun aztertu, besteei uste dutena adierazten uzten diegun, iritziak gaitzesten ditugun, eta abar.

**Materialia:** Internet edo "informazio askatasunari" buruz Internetetik hartutako materiala.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

**Iradokizunak:** Jarduera hau osa daiteke gelan, ikastetxean eta familian izan beharreko komunikazio arauak zehaztuz. Horretaz gain, azter daitezke informazio askatasuna, intimitaterako eskubidea, eta abar zalantzetan uzten duten kasu konkrituak.

## 2 Jarduera: “Zertarako?”<sup>1</sup>

**Deskribapena:** J. A. Artze-ren olerkiaren azterketa.

1. fasea: J. A. Artzeren aurkezpena: idazlearen lana markatu duten xehetasun pertsonalak eta bizi izan den testuinguru historikoa. Liburutegian edo Interneten bilaketa egiteko eska dakieke autorea, bere testuingurua eta lanari buruzko informazioa osatzeko.
2. fasea: Eranskinean den olerkia banatu eta taldeka irakurri eta eztabaidatu egingo da giza eskubideekin zerikusia duten.
3. fasea: Talde bakoitzaren ondorio eta gaiak komunean jarriko dira eta debate bat egin daiteke bidegabekeriak eta giza eskubideen haustearen aurreko betekizunari buruz, bai eta guztiok pertsona guztien giza eskubideak defentsan dugun erantzukizunari buruz ere. Hausnarketa egin daiteke komunikazioak (komunikabideak, idazleak, abeslariak, ...) eskubide eta betebeharren defentsan duten paperaren inguruan.

Amaitzeko planteia daitezke bizi eremu guztietan pertsona guztien duintasunaren errespetu eta sustatzearen garrantzia eta beraiek komunikabideak eskura izanik egin dezaketenari buruzko proposamenak ere bai.

**Materialia:** J.A. Artzeren olerkiaren fotokopiak (fitxa 2.1.).

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

<sup>1</sup> GIL, F, JOVER, G. y REYERO D. egokitua, La enseñanza de los derechos humanos. 30 preguntas, 29 respuestas y 76 actividades. Ed. Piados, Bartzelona 2001, 61-65.orr.

## Fitxa 2.1.

Zertarako zara  
aurrenekoa,  
ez bada laguntzeko  
azkenekoa?

Zertarako duzu  
zeure gehiagoa,  
besteren gutiagoa  
gehitzeko ez daduzu?

J.A. Artze





# Gizarte zientziak, Geografia eta Historia



MUNDUKO  
HIRITARROK



**Alboan**

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Ezagutza norbere historia eta Europar Batasunaren gainean handitzea.
- Datuak lortu eta hautatzeko gaitasuna garatzea bai eta horien analisi kritiko eta autonomia ere.
- Emandako informazio batetik iritzi kritikoa egitea.
- Tolerantzia, ideia eta iritzi aniztasunekiko errespetua garatzea.
- Ikasleak inplikaturik dauden egoerak kritikoki autoebaluatzea.
- Giza eskubide eta askatasunak onesti eta baloratzea gizaki guztiontzako eskubide utziezin legez.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Sexuen arteko berdintasuna gure historian”

**Descripción:** Ikasleei eranskinean den historian zehar izaniko sexuen arteko berdintasuna gaiari buruzko dokumentua emango zaie. Eskatuko zaie, taldeka daudela, ezagutzen ez zituzten datuak, harritu zituztenak, etab komentatzeko. Ondoren, azterketa lan bat eskatuko zaie: datuak duela gutxiko informazioarekin eguneratzeko eskatuko zaie eta datu horien eta historia nork eta nola kontatzen duen baloratzeko. Eska dakieke, oro har, historia aztertzeko orduan irizpide minimo batzuk definitzeko beste perspektiba batzuk eta gutxiengoak ere kontuan hartzeko.

**Materiala:** Eranskineko dokumentuak (fitxa 1.1.) eta liburu edo Interneteko bilaketa.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

**Iradukizunak:** Informazioa jaso den web orrialdean europar beste herri batzuetako azterketak ageri dira. Taldeka, europar herrialdeen arteko egoera konparaketa bat egin daiteke: Finlandia, Frantzia, Britainia Handia, Norvegia eta Espainia.

### 2 Jarduera: “Europar biztanleak”

**Descripción:** Ikasleei europar biztanleen inguruko ikerketa tailer bat egiteko proposatuko zaie. Abiapuntu legez 2.1. fitxako artikulua laburpena emango zaie. Horik aurrera, taldeka, interesatu zaien gai bati buruzko ikerketa bat pentsatu beharko dute (oinarrizko eskubideen gutuna eta deklarazio unibertsalaren inguruan izan daiteke, Europar Batasunean libreki ibiltzeko eskubidea eta horren mugak, etab). Horretarako eskura dute Interneteko informazioa, liburuak, aldizkariak, europar leihatilatxoak edo Europari buruzko Informazio bulegoak. Lehenengoko saioan ikerketaren eskema egin daiteke. Ikasleei bi saio emango zaie eskuratutako informazioa komunean jarri eta egituratzeko. Azken saio batean, gainontzeko ikasleei aurkezpena egingo zaie era txukun eta grafiko batean.

**Materiala:** Eranskineko dokumentuak fitxa 2.1. eta liburu edo Interneteko bilaketa.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko bost saio.

**Iradokizunak:** Web orrialdean den informazio anitza irakasleak erabil dezake jardueraren aurkezpeneko. Gainera, ikasleak ikerketarako eskura izan dezakeen lotura ugari dago.



## Fitxa 1.1.

### SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNA GURE HISTORIAN

Demokraziarako bidea ez da erraza izan Espainian, dio María Teresa Gallego Méndez.ek (1994; 662). 1923an, Miguel Primo de Rivera Generalaren agindupean hartu zuten espainiar emakumeek lehendabizikoz parte instituzio politikoetan. Primo de Rivera General deitutako Gorte Nagusietan 385 eserleku zegoen eta horietako 13 emakumeek betetzen zituzten. Guztiak ziren burgesia eta aristokraziatik etorriak. II Espainiar Errepublikak, erregimen laiko, liberal eta progresistak karakterizatuak, primo de Riveraren diktadurari amaiera eman zion. Erregimen horrek aukera eman zien emakumeei estatu mailako karguetan parte hartzeko eta ondorioz, 1931ko Gorte Eratzailleetan hiru emakume aukeratu ziren diputatu. Hala eta guztiz ere, emakumeek oraindik ez zuten bozkatzeko eskubiderik eta horrek eztabaida gogorra eragin zuen emakumearen sufragioa zela eta. Emakumeek iritzi politiko kontserbadoreak zituztela uste zen, Eliza Katolikoak menperatuak eta ezkerria, emakumeek politika munduan parte harrezaten alde, emakumeen botoaren beldur zen hori zela eta. Baina emakumeen botoarako eskubidea eta sexuen arteko berdintasuna onesten zuen Konstituzioa onesti zen, eta emakume espainiarrek botoa eman zuten lehendabizikoz 1933an (ibid).

Guda Zibila 1936an hasi zen eta hiru urtez iraun zuen. Emakumeek bando bietan hartu zuten parte. Emakume talde ezkertiarak faxismoaren aurka altxatu ziren. Emakume katolikoek taldek Franco Generalaren aldekoak ziren, legezko Errepublikar gobernuaren kontra altxatu zena. Atal Femeninoa Frankoren aldeko estatuak berak sortutako erakundea izan zen. Emakumearen ohiko paperean eta bertute katolikoetan egiten zuen indar, baina lehenengo frankismoan izan zen gai femeninoak adierazteko bide bakarra zen. Ordezkarietako bi diputatu izendatu zituzten Frankoren Gorteetan, 1943an eratu zen gorputz aholku-emailea. 1975erako 13 emakume diputatu izendatuak ziren. 1968an emakume batzuk alkate ere izendatu ziren (ibid, 663).

Haatik, Celia Valientek gogorarazten digu "Frankoren erregimen autoritario eta eskuindarra, emakumeen eskubide eta estatutuen garapenaren kontra zegoen". Frankoren erregimenak 1939tik 1979ra iraun zuen, Franko hil zen urtea.

Erakunde ezkutu batzuk sortzen hasi ziren 60 hamarkadan demokrazia, eta gizon-emakumeen eskubide eta askatasunak berriro lortzearen, ordura arte Frankoren diktadura dela eta ukatuak izan zirenak. Jarduera horietan zerikusia zuten emakume gehienek nolabaiteko orientabide kultural eta profesionala zuten. Izan zuten papera garrantzitsua izan zen familiaren zeregin bakarra zuten emakume frankisten ideia nazional-katolikoak beste berri batzuek sartu eta zabaltzeko orduan. Abenduaren 6 eta 8an, Franko hil eta bi aste beranduago, lehenengoko bilera feminista izan zen Madrilan. Ezkutuan antolatu zen eta euren funtzio bakarra Nazio Batuek izendaturiko Emakumeen Nazioarteko Urtea zela eta gobernuaren jarreraren aurka azaltzea zen. 500 emakume baino gehiagok hartu zuten parte bileran, eta hori izan zen Frankoren erregimenaren ostean egin zen lehendabiziko mitin politikoa. Gallegok dio, espainiar politikaren historiaz mintzatzean kontu hori ez dela aipatu ere egiten. 1976an Emakumearen Askatasunerako Frontea ezarri zen eta Emakumearen I Jardunaldiak Bartzelonan antolatu ziren. 4000 bat emakumek hartu zuten parte Jardunaldiotan eta haren ondorioz, erakunde feminista gehiago sortu zen. Erakunde gehienak ezker aldeko alderdiei lotuta zeuden, izan ere interesatzen hasi ziren emakumeek egiten zituzten aldarrikapenak zirela eta. Gallegoren ustetan, testuinguru politiko berezi hark aukera eman zuen trantsizio demokratikoaren prozesu orokorrean emakumeen aldeko eskubideen borroka sartzeari (Gallego, 1994; 661-667).

1977an, alderdi politikoak legalizatu eta hauteskunde orokorrak egin ziren ekainean. Alderdi askok eta 5000 kandidatu baino gehiagok, haien artean 653 emakumek, Diputatuen Kongresuko 350 eserleku lortzearen borrokatzen zuten. Senatuko 248 eserlekuetatik emakumeek 6 lortu zituzten (%2,4). Gallegoren ustetan, emaitza xume horiek izanik ere, hauteskundeek aukera eman zieten feministei komunikabideen bitartez adierazpen publikoa izateko. 1979an, Nazio mailako beste Jardunaldi

SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNA GURE HISTORIAN





Feminista batzuk ospatu ziren Granadan, eta bertan beste 4000 emakumek hartu zuten parte. Aktibismo feministak presentzia publiko handia izaten segitzen zuen 1979 arte. Baina ez zuen ondorio zuzenik izan emakumeen instituzio politiko ofizialetan parte hartzeko orduan. 1979ko hauteskundeetan, baita 1982 eta 1989 artean egin ziren gainontzekoetan ere, emakumeek jesarlekuen %6 izan zuten Diputatuen Kongresuan. Urte horietan, emakumeen proportzioa Gorteetan %2,4 eta %5,6 artean zegoen (ibid).

Hauteskundeetan, hautesleek ez ohi dute hautagai bati botorik ematen, zerrenda itxiei baizik, eta soilik eman dezakete boto bat partidu jakin batentzat eta ez pertsona batentzat. Emakumeak zerrendako azken lekuetan egon ohi dira eta horrek zailago egiten du beraien hautaketa. Soilik aplika daiteke Senaturako botoak ematean "emakumeek emakumeei" ematen dietela botoa dioen printzipioa horretarako zerrendak irekiak izateagatik (ibid, 672).

1982an PSOEak hauteskundeak irabazi zituen eta gehiengoa lortu zuen ganbara bietan, eta horrek trantsizio garaia amaiara eman zion. Gallegok gehiengo sozialistak emakumeen egoera politikoa hobetzeko itxaropenak ekarri zituela azaltzen du, baina Gorteetako osaketan aldaketak izan arren, emakumeen presentzia bertan antzekoa zen. 80ko hamarkadaren amaieran izan zuten emakumeek parte hartze handiagoa alderdi politikoetan eta instituzioetan, kandidatuen sexuaren inguruko kuotak ezarri zirenean. PSOEak %25eko kuota proposatu zuen 1987an. Behin kuotak aplikatuta, eta PSOEaren antolamendu federalari esker, handitu egin zen emakumeen presentzia erkidegoetako alderdi politikoetan, eta proportzioa herrialdeetako komite exekutiboetan %8,1 izatetik %22,4 izatera igaro zen. Emakumeen proportzioa alderdi sozialistan %16tik %21,1era pasatu zen 1991n. Beste alderdi nagusian, PPn, emakumeen proportzioa %30ekoa zen 1991n (ibid, 661-671). 1996an PSOEak ordezkari-tza kuota parekidea izatea erabaki zuen (gizon eta emakumeentzako % 40 eta 60 artean) alderdiaren organoetan eta hauteskundeetarako zerrendetan. Beste alderdi ezkertiarrek ere, IU esaterako, neurriak hartu dituzte gizon eta emakumeen ordezkari-tza parekoa izateko.

Kuoten sistemaren sarrerak ondorioak izan zituen 1989ko hauteskundeetan. Diputatuen Kongresurako emakume kandidatuak 1986ko %21,8tik 1989ko %30,5era igaro zen. Senaturako emakume kandidatuak eta %15etik %23,9ra igaro ziren. Hauteskundeetan emakumeek, lehendabizikoz, %10eko ordezkari-tza lortu zuten ganbara bietan, eta horrek Gorteetan ziren emakume kopurua bikoiztu egin zuen (%14,6 eta %10,8 jesarleku Diputatuen Kongresuan eta Senatuan hurrenez hurren) aurreko hauteskundeekin alderatuta (ibid). Azken hauteskunde orokorretan, 1996koetan, PPak PSOEa irabazi zuen, gobernua izan zena 1982tik, baina horrek ez zien espainiar emakumeei emaitzak hobetzea galarazi: Diputatuen Kongresuan %25eko ordezkari-tza lortu zuten eta %13 Senatuan.

Emakumearen Institutuak eginiko Estatistiken arabera (IM), ez da horren argia izan emakumeen ordezkari-tzaren hazkundera autonomietan eta desadostasun handiak daude beraien artean. Emakumeen %6aren batez besteko batek parlamentu autonomikoetan jesarlekuak zituzten, eta 1991n %14 ziren. 1991n emakumeen ordezkari-tzak %20koa zen Madril, Errioxa eta Asturiaseko parlamentuetan, baina %10ekoa baino eskasagoa zen Kanariar, Aragoi, Kantabria eta Gaztela eta Leon-ekotan (Emakumea, 1992; 60).

Autonomia erkidego guztietatik Murtziak baina ez zuen emakume bat hautatu presidente izateko. Seik, aldiz, ez du emakumerik gobernua. Udaletxeetan, bikoiztu egin da emakumeen parte hartzea, 1983an (164 alkate) eta 1991n (393). Hala ere kopuru txikiak dira oraindik, 1991n alkate ziren emakumeen proportzioa osotasunaren %4,2 baino ez zen eta. Berrito ere, udal kontseiluan den emakumeen kopurua aldatu egiten da herrialdearen arabera: 1991n Euskal Herriak zuen alkate emakume kopururik altuena (%9,3) eta Kanariak %1,2, eskasena (ibid.).

1982tik, administrazio nagusiko emakumeen kopuruak gora egin du. Azken gobernu sozialistan hiru emakume Ministro, hiru Idazkari eta Idazkariorde egon zen. Gaur egun (1997) lau emakume Ministro dago. Emakume gehienek segitzen dute administrazioeko postu baxuagoetan lan egiten. Herri administrazioan diren langileen %40 baino gehiago emakumeak dira, baina ardura handiko postu altuetakoa

%24,4 baino ez eta soilik %12 ziren zuzendari 1991n. Goitik beherako zatiketa honetan bada zatiketa horizontala ere sexuen artean, emakumeak Kultura, Gizarte Kontuak eta Hezkuntza Ministerioetan aritzen dira. Sektore horietan zeuden zuzendari gehienak 1991n. Gizarte Arloan %28,6, Kulturean %27,3 eta Hezkuntza eta Zientzian %22,2; Justizia eta Defentsa Ministerioetan, aldiz, ez zegoen emakume zuzendaririk (ibid.; 62).

Emakumearen integrazioa Espainiako politikan beranduago hasi da eta gizarte mailako beste eremu batzuetan baino astiroago gertatu da (Diez, 1994). Francoren diktadurak iraun bitartean, ez zegoen Europarekin alderatzeko moduko jarduera politikorik eta inork ez zuen esperientzia politikan; hortaz, emakumeak berdin hel zitezkeen maila berera, baina ez zen hala izan. Zerk galarazi zuen emakumeen parte hartzea? Gallegok (1994; 665) honako erantzuna proposatzen du: Francoren ia 40 urtetako diktaduraren ostean, ez zegoen Espainian politika demokratikoaren kulturarik eta jende asko, feministak bereziki, ez zuten sistema politikoarenganako konfiantzarik, izaera patriarkaduna zen. Horrela, zalantza baten aurrean jarri ziren: arlo politikoan jardun edo ermu instituzionaletik kanpo geratu.

Feministen eskaera, programa eta deklarazioak pil-pilean zeuden trantsizio demokratikoa hastean, baina xede komunak lortzeko ideia ezberdinak zituzten. Horrek banaketa eragin zuen erakunde feminista autonomoetan parte hartu nahi zutenak eta legezko erakunde politikoetan aritu nahi zutenen artean. Emakumeei buruzko 1979ko Nazio mailako Granadako Jardunaldietan, emakumeak ez ziren etorkizunerako estrategiei zegokienez ados jarri, horrela desadostasunak areagotuz. Gizon-emakumeen arteko ezberdintasunetan edo berdintasunean indar egiteari buruzko iritziek gehiago hautsi zuen mugimendu feminista eta zailago bilakatu taldeen arteko lankidetzak. Hala ere, orduan, espainiar mugimendu feministarentzat gai garrantzitsu batzuek, abortuaren legalizazioa eta sexu erasoaren kontrako borroka, batu egin zituzten emakumeen erakunde ezberdinak (ibi.).

1984an, Ikerketa Soziologikorako Zentroaren zundaketa batek erakutsi zuen emakumeen %92 eta gizonen %82 ez dela inoiz alderdi politiko bateko kide izan (Gallego, 1994; 670). IM-aren azterketa berriagoek segitzen dute erakusten emakumeen interes falta politika munduan aritzeko. 90eko hamarkadaren hasieran emakumeen %3,2 zegoen alderdi politikoren batean, Gainera, ehun pertsonetatik emakume bakar batek esaten zuen politikan parte hartu nahi zuela. Edozelan ere, emakumeen kopuruak alderdietan gora egin du azken urteotan. Emakume gazte gaituak, hiri inguruetan bizi eta ezker-raldeko ideiak dituztenak dira interesik handiena dutenak politikan (Emakumea, 1992; 57 eta 64). Beraz, baliteke ez oso berandu emakume gehiago aritzea politikan Espainian.

Aurkezturiko debateetakoren bat oraindik hor dira, baina jarrerak aldatu egin dira eta azken hamarkadan emakumeek nahikotxo aurrerratu dute politika mailan. 80ko hamarkadako gobernu sozialistak eta bertan ziren emakumeek lagundu egin zuten garapenean. Izan zuten estrategia politikoak aukera eman zuen programa politikoetan sexuen arteko berdintasunaren ingurukoak sartzeko.

<http://www.helsinki.fi/science/xantippa/wes/westtext/wes252.html#5.2.5>. España

## Fitxa 2.1.

### Eskubideen hedadura

Hiritartasun estatutuan jasotako eskubideak, askorentzat, oraindik eskasak dira eta europar gutxiengatik eragina, hortaz, hiritar gehienentzat ez dute garrantzirik.

Garrantzitsuena, dudarik gabe, **zirkulazio** librea eta bizilekua. Asko aurreratu da Erromako Tratatutik, bertan leku-aldatze askatasuna erabat lotuta zegoen lanarekin, baina oraindik dira kendu beharreko mugak. **Schengen-eko akordio eta hitzarmena**, izanagatik ere, edozein herrik kontrola dezake muga segurtasuna arriskuan ikusiz gero, egoitzarako baimenak mugak ditu oraindik...

Gainontzeko eskubideen isla oso eskasa da europarren eguneroko bizitzan: Herriaren Defendatzailea apezlatzeko eskubidea soilik da komunitate kontuetarako; Parlamenturako eskubidea bazegoen eta oraindik oso botere gutxi dituen Parlamenturako da; kide den beste herri batean sufragiorako eskubideak eragina du argi eta garbi minoritarioa den europar kopuru garrantzitsu batean; babes diplomatikorako eskubidea bere herriko enbaxada edo kontsulatuak ez dituen hirugarren herri bat bisitatzen duten europarrentzat baino ez da...

“Euroeszeptiko” den Ralf Dahrendorf-en iritziz, europarrak oraindik berak hiritar “teorikoa edo biguna” deitzen duena (komunitate bateko kide izateko nolabaiteko sentimendua, zenbait nahi eta balore komun) eta hiritar “zehatz edo gogorra” (eskubide zehatzak –botoa, epaiketa justua, adierazpena, elkarteak...– aldarrikatu daitezkeenak eta gure eskubideak praktikan jartzeko joan gaitzkeen instituzio juridikoak). deitzen duenaren artean den bidearen erdian dago.

Hurrengo urteetako debate nagusia hori izango da, indarra eta zehaztasuna emango diogu europar hiritartasun estatutuari, edo mantenduko dugu neurri handi batean teorikoa den mailan?

Batzuek kritikaturiko urrats bat **Carta de Derechos Fundamentales** deritzona idatzi duten adituen talde bat sortu izana izan da, hain zuzen ere, Europar Batasunak onesteko dena. Lehenengo agiria onesti egin da 2000ko udan eta oraindik dago komunitateko organoen debate eta onespeneren zain.

<http://www.iespana.es/jocana59/europa/ciudadident.htm>



# Musika



MUNDUKO  
HIRITARROK



## Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Musika klasikoa eta modernoa komunikatzeko era unibertsal gisa baloratzea.
- Musikak eragindako sentsazioak esperimintatzea.
- Emigranteen egoeraz hausnartzea.
- Egoera jakin batera hurbiltzea perspektiba edo ikuspegi ezberdinetatik.
- Musikaren dimentsio estetikoa baloratzea.
- Musikaren analisia hezteko, ez soilik informazio edukien komunikazio era bezala ez ezik, sentimendu eta fantasiaren pizgarri legez ere.

## Jarduerak

### 1 Jarduera

#### “Musika aniztasuna, kultura aniztasuna”<sup>1</sup>

**Deskripzioa:** Musika-konposizio biren inguruan eta beroriek aditzera ematen dutenaz hausnartzeko proposamena egingo da. Lehendabizikoa Alexander Borodin-ena da (6 minutuko iraupena) eta bigarrena Aarón Copland-ena (6 minutuko iraupena). Hasteko, fitxa 1.1. eta 1.3an den oinarritzko informazioa irakurri eta aurkez daiteke. Ondoren, konposizioa entzun eta fitxa 1.2. eta 1.4ko iradokizunen gaineko debatea egin daiteke.

**Materiala:** CD-a, musika aparailua eta fitxa 1.1., 1.2., 1.3. eta 1.4.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

### 2 Jarduera:

#### “Emigranteei buruzko musika”

**Deskripzioa:** Egungo musika-konposizio bi proposatuko dira emigranteen egoeraren gainean lan egiteko. Abestiak dira: “Mazisi okeita Denbele”, Jabier Muguruza-ena (Nueva Etiopia CDan) eta “Kaixo amatxo”, 7 eskale-ena. Hasiera batean, ikasleei erritmo, soinu eta horiek eragindakoari errepartzeko eska dakieke. Gero, letraren informazio edukiaren inguruan egin daiteke lan. Bigarren aldiz kanta ondo entzunda, hutsuneak bete ditzaten etab. eska dakieke. Ondoren, taldeka, musikak eragiten dituen sentimenduak eta letraren zentzuaren arteko harremanik dagoen aztertuko dute. Halaber, iradokitako galderen gaineko debatea egin daiteke gelan.

**Materiala:** Kanta bakoitzaren fotokopiak (fitxa 2.1. eta 2.2.), CD-ak.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.

<sup>1</sup> Jarduera biak onartu egin ditu Amnistia Internacional-ek (<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/musica/fichas-indice.html>).

## Fitxa 1.1.

### Aurretiko informazioa:

Autore askok sorterriarekiko maitasuna eta bertakoen "arima" bilatzen sakontzearen inguruan konposatu dute euren lana. Alexander Borodin, lanbidez kimikaria, San Petesburgon jaio zen 1833ko azaroaren 12an. Bizitza osoan uztartu egin zituen bere karrera zientifikoa, kimika, eta musika karrera. Folklorea eta errusiarren epikari balio handiagoa eman zien erreakzio nazionalista batean ahaidetu zen. bere lanean mundu arrazionala eta sentimentala adiskidetzen jakin zuen, antzinako Errusiako usadioak mendebaldeko influentziak sintetizatu zituen eta trebetasun handiz elkartzen dituen samurtasuna eta indarra. "En las Estepas del Asia Central" konposizioa entzuteko proposamena egingo dugu. "Egun argia da. Erdialdeko Asiako estepa hareatsuan errusiar kantu gozoa durundan dabil. Sakonean zaldi eta gamelu karabana bat ageri da eta ekialdeko doinu baten oihartzuna heltzen zaigu. Karabana patruilatzan duten errusiarren kantua eta asiarren doinuak harmonia bakar batean bat egiten dute eta azkenean dena desagertzen da esteparen isiltasunean".

Konposizioa interpretatzean, Pestalozza musikaria "komunean duten lurraren gaineko fondoan jende ezberdinen artean den giza elkartasunaren esperantzaz" mintzatu zen.

## Fitxa 1.2.

**Konposizioa entzun ostean, honako kontu hauetakoren baten gaineko debatea egitea proposatuko da:**

- Zer sentitu duzu musika entzutean?
- Zure ustez zer transmititu nahi zuen autoreak?
- Doinu ezberdinak identifikatu ahal izan dituzu? Kultura ezberdinak ekar al dizkizu gogora?
- Usta al duzu uztar daitezkeela kultura ezberdinetako influentziak?
- Lortu den adibideren bat bila dezakezu?

## Fitxa 1.3.

### Aurretiko informazioa:

Copland, 1900ean jaioa, Iparramerikatako konpositorerik onenetakoa da. Sinfoniak, kontzertuak, baletak, eta abar konposatu zituen. "Estatu Batuetako arima" eta bertako biztanleena adierazten jakin zuen emigrante irlandar, britainiar... eta abarrek Europatik ekarritako musika, musika tresna afro-amerikarrekin elkartuz.

Sakon daiteke Iparramerikara heldu ziren herri ezberdinen gainean, beraien arteko mestizaia eza, indioen sarraskia, ...

Ohar zaitezte musikan ematen den mestizaiaz. Musikari handiek beste kulturen ekarpenak baloratuko dituzte eta jatorrian europarrak direnek musika beltza jazzean eta geroago rockean

1942ko Suite "Rodeo"-ko mugimendu 2 entzuteko proposamena egingo dugu. Lehenengo mugimenduan belardi ikaragarriak, txoriak... islatzen dira. Bigarrenean, jaiaren eguna da eta zaldizkoak alai heltzen dira, gazteek dantzatzen dute eta dibertitu egiten dira.

## Fitxa 1.4.

### Konposizioa entzunda, honako kontu hauetakoren gaineko debatea egitea proposatuko da:

- Zer sentitu duzu musika entzutean?
- Zer uste duzu transmititu nahi duela? Zuri zer adierazi dizu?
- Mendebaldeko pelikularen soinua al du?
- Ezagutzen al duzu mestizaia edo nahasketa musikaren bat, adibidez, flamenkoa Hego Afrikako erritmoarekin..?
- Zer deritzozu?
- Nola baloratzen duzu musika mota ezberdinak elkartzea? Aberastasuna al da?
- Ez al da gauza bera pertsonekin gertatzen?

## Fitxa 2.1.

### Mazisi Okeita Denbele

Mazisi Okeita Denbelek  
Bilboko kanfetegietan  
kafe kitarra hartu eta  
espainetara darama petzakor.

Zer ari ote da pentxatzen  
Mazisi Okeita Denbele  
kafetegi horretan, urrun  
etxetik hain urrun, Bilbon.

Afrikaldetik etorritako  
gizon horri begiratzen diot,  
mostradore atzeko ispiluan  
kafea hartzen ari da pentsakor.

Zer ari ote da pentsatzen....  
Ispilu aurrean dauden  
bi koinak botilen artean,  
hortxe ikusten ditut  
gizon horren begiak pentsakor.

Zer ari ote da pentsatezen....

Afrikaldeko bere herriskan  
ari ote da pentsatzen?  
Hango andre batengan?  
Hango lehortez? Hango gerraz?

\*Lingo, Lingo, Mboka te  
Lingo, Lingo Modele te,  
Lingo Lingo Moyindo te,

Tina Tokabuana Ngo Salo,  
Moko Mama Tina Nini Toyinama.

\*MAITASUNAK EZ DU HERRIRIK  
MAITASUNAK EZ DU ZURIRIK  
MAITASUNAK EZ DU BELTZIK

ZERGAIK BEREZI BEHAR DUGU?  
ZERGAIK GORROT IZAN ELKARRI

### Debaterako iradokizunak:

- Zer sentitu duzu musika entzutean?
- Zer uste duzu iradokitzen duela autoreak?
- zuri, zer esan dizu letrak?
- Ezagutzen al duzu antzeko egoeraren bat?
- Ados al zaude "mezuarekin"?

## Fitxa 2.2.

### Kaixo amatxo

Kaixo amatxo idazten dizut  
bihotza esku batean  
gure anai bat itota hil zela  
Gibraltargo itsasartean  
mundu berri bat bilatu zuen  
arnasik zuen artean  
baina sarrera garesti dago  
Europa zaharreko atean

Hemen lehenego begiratzan da  
azalaren kolorea  
horren neurria bereizten baita  
goia edo eta behea  
guri tokatu zaigu "lñakiak"  
izateko ohorea  
dudatan nago hau edo hori  
zein ote dugun hobea

Mundu berri hau ezta hain berria  
zaharra dela esango nuke  
hemen zeozer daukaten denek  
gehiago dutela uste  
hemen izanak aldatzen dira  
izen berri baten truke  
miseriarik alde egin nahian  
beraien barnean dute

Euri ziztrina dario jori  
berriro ere kanpoan  
lehioan zutik nago oriandik  
nere trastoak kolkoan  
agurtzen zaitut nahiz eta zorte  
asko ez izan gaurkoan  
bihar berriro beste egun bat  
zabalduko delakoan.


7 ESKALE

### Debaterako iradokizunak:

- Zer sentitu duzu musika entzutean?
- Zer uste duzu iradokitzen duela autoreak?
- Eta zuri, zer esan dizu letrak?
- Ezagutzen al duzu antzeko egoeraren bat?
- Ados al zaude mezuarekin?



# Natur Zientziak



MUNDUKO  
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Ekosistema eta bioaniztasunaren funtzionamendua ezagutu eta horretaz hausnartu.
- Planetaren funtzionamenduan oreka izatearen beharraz hausnartzea.
- Ingurugiroaren zaintze orekatua baloratzea.
- Ingurugiroaren zaintzea kritikoki aztertzea.
- Animalia eta ingurugiroarekiko errespetu kontzientzia sustatzea.
- Eztabaidatu eta proposamenak egitea landutako gaien inguruan.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Oreka ekologikoa”

**Deskribapena:** Oreka ekologikoari buruzko kiniela bat proposatuko da. Kiniela irakasleak klasean landutako ezagutzen arabera molda dezake.

Lehenengo eta behin ikasleei kiniela banaka betetzeko eskatuko zaie. Geroago taldeka lan egiteko eskatuko zaie erantzunak direla eta adostasun batera hel daitezten. Amaitzeko, komunean jarri eta oreka ekologikoari buruzko ondorioak ateratzen saiatuko dira. Jarraian eta berriro ere taldeka, honako testua irakurri eta berarekin batera diren galderei erantzuteko esango zaie.

**Materiala:** Kiniela (fitxa 1.1.) eta galderak dituen testua (fitxa 1.2.).

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

## 2 Jarduera: “Ginkana izugarria”<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Zoologiko edo natur erreserba batean ginkana bat egitean datza. Internet ere erabil daiteke eta era birtualean zoologiko edo natur erreserba baterako bisitaldia egin.

Ikasleek bisitatuko duten errealitateari egokitutako proba batzuk burutu beharko dituzte. 2.1. fitxan batzuk proposatzen dira.

Jarduera osa daiteke zoota eta natur erreserbaren gaineko ingurugiroa zaintze edo esplotatze era gisa. Sakon daiteke onartzeko moduko garapenak dakartzanei buruz: “egungo belau-naldiaren beharrak asetzen duen garapena da etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri barik”.

Zer esan nahi du horrek? Zer-nolako eraginak ditu familia, ikasgela eta auzoan? Eta mundu mailan? Zeintzuk eskubide eta betebeharrak errespetatu beharko lirateke zure ustetan?

**Materiala:** Ginkanarako probak.

**Dinamika:** Taldeka.

**Iraupena:** Egun bat.

## 3 Jarduera: “Etxeko animaliak: eskubideak eta zaintza”<sup>2</sup>

**Deskribapena:** Aurretik ikasleek etxeko animaliei buruzko inkesta bat izango dute eginda:

- Ba al duzu etxeko animaliarik zure etxean edo senitartekoren batenean?
- Nola zaintzen du(zu)?
- Erantzule al dira berarekin?
- Astirik al dute garbitu, jaten eman, berarekin jolastu eta al baitariarenera eramateko?
- Erosoa al da bizi den ingurua?
- Animaliak txartu tratatzen duen jenderik al dago?
- Ba al dago herrian etxeko animaliek pairatzen dituzten tratu txarrak salatzen dituzten Instituziorik?

Lortutako emaitzak komunean jarriko dira, etxeko animalien tratu txarrak, ...

Ondoren, Animalien Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzko lana planteatuko zaie, [http://www.mascotamigas.com/declaracion\\_universal\\_derechos.htm](http://www.mascotamigas.com/declaracion_universal_derechos.htm).

Testua irakurritakoan, taldeka honako galdera hauen gaineko hausnarketa egin dezaten eskatuko zaie.

**Materiala:** Animalien Eskubideen Deklarazio Unibertsala (fitxa 3.1.).

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bat.

<sup>1</sup> GIL, F, JOVER, G. y REYERO D.-tik egokitua, La enseñanza de los derechos humanos. 30 preguntas, 29 respuestas y 76 actividades. Ed. Piados, Bartzelona 2001, 171 or.

<sup>2</sup> [www.planetaecologico.com/diadelatierra-tik](http://www.planetaecologico.com/diadelatierra-tik) hartuta.

# Fitxa 1.1.

## Kiniela ekologikoa

1. Ekosistema batean:
  - a. Ingurugiroak ez du baldintzatzen.
  - b. Organismo bakoitzak, herri bakoitzak eta komunitate bakoitzak funtzio zehatz eta garrantzitsuak ditu.
  - c. Organismo bakoitzak, herri bakoitzak eta komunitate bakoitzak ezin izan dezake funtzio zehatz eta garrantzitsuak.
  - d. Organismoak ez daude faktoreen menpe.
2. Ekosistema osatzen dute:
  - a. Bertan bizi diren organismoak.
  - b. Bizirik ez den giroa klima, hozberoa, sustantzia kimikoak, baldintza ekologikoak, etab.
  - c. Aurreko biak.
  - d. Aurrekoetako bat ere ez.
3. Ordena itzazu handienetik txikienera honako ekosistema hauek:
  - a. Ekoesfera, ozeanoa, basoa, arbola, sagarra.
  - b. Ekoesfera, basoa, ozeanoa, arbola, sagarra.
  - c. Ozeanoa, ekoesfera, basoa, arbola, sagarra.
  - d. Ozeanoa, basoa, ekoesfera, arbola, sagarra.
4. Ekosistema guztiek antzeko funtzionamendua dute.
  - a. Bai.
  - b. Bai, eta guztiek behar dute energia iturri bat, eguzkia.
  - c. Ekosistema tamaina eta motaren arabera ezberdina da.
  - d. Ez.
5. Ekosisteman materia ..... da, eta energia ..... da sistemaren antolamendua sortuz.
6. Ekosisteman honakoak aztertuz ikasten dira:
  - a. Elikadura erlazioak.
  - b. Materiaren zikloak.
  - c. Energiaren isuriak.
  - d. Hirurak.
7. Ordena itzazu honako elikadura kate hauek:
  - a. algak > errotiferoak > nematodoak > satitsua > tardigradoak > hontza.
  - b. hontza\_ algak > errotiferoak > tardigradoak > nematodoak > satitsua.
  - c. algak > nematodos > tardigradoak > errotiferoak > satitsua > hontza.
  - d. algak > errotiferoak > tardigradoak > nematodoak > satitsua > hontza.

8. Osagai biotikoa da:

- a. Airea.
- b. Ura.
- c. Eguzki argia.
- d. Algak.

9. Espezien arteko elkarreaginean positiboa da:

- a. Mutualismoa.
- b. Parasitismoa.
- c. Konpetentzia.
- d. Harrapatzea.

10. Ez dute ingurugiroaren gain eragiten:

- a. Zerrategiak.
- b. Manglareak.
- c. Abere-hazkuntza intensiboa.
- d. Hondartzen dragatzea.

11. Belakiak dira:

- a. Zelulabakarreko organismoak.
- b. Ornodun ezagunenak.
- c. Zelulanitzik primitiboenak.
- d. Itsasoko landareak.

12. Ekosistemak honakoak direla kausa hautsi daitezke:

- a. Lurraren beroketa.
- b. Hondakinen arazoa.
- c. Zenbait espezieren desagerpena.
- d. Guztiak.

### Irakasleentzako erantzunak

Emaitzak:

- |                      |       |
|----------------------|-------|
| 1. b                 | 7. d  |
| 2. c                 | 8. d  |
| 3. a                 | 9. a  |
| 4. b                 | 10. b |
| 5. birziklatu, isuri | 11. c |
| 6. d                 | 12. d |

## Fitxa 1.2.

### Testua:

“Gizakion arraza mehatxupean dago, planetako ekosistemarekin batera eta tamaina handia zein ertaina duten animalia espeziekin batera. Guk geuk mehatxatua, esango du askok eta askok gure espeziea salatuz arazo horretatik at geratuko bagina legez edo inolako apelazio barik kondenatuak izan beharko bagina bezala.

Egia esan, ingurumenak pairatu izan duen hainbat aldaketa sakon eta azkarren erantzule bagara ere, errudun bezain biktima gara. Bai, biktima ez dugulako gure berehalako behar eta ongizaterako tresnak erabili eta ingurumena egokitzeko berehalako gaitasuna garatu izanagatik. Etengabe aldatzen eta bilakaeran ari den eta aldi oro egokitu eta moldatzen ari den naturaren seme-alaba zintzo gisa, ahal izan duguna egin dugu bizi eta ugaltzeko. Espezie bakoitzeko norbanako bakoitzak subkontzientzian grabaturik duen agindu biologiko horren argipean ebaluatuak, garatzen ari den arrakasta gara.”

[www.planetaecologico.com-etik](http://www.planetaecologico.com-etik) hartuta.

1. Irakurri honako testua eta guztien artean adostasuna zein desadostasuna komenta ezazue.
2. Ekosistemaren azterketatik (kinielaren bitartez), zer-nolako irakasgaiak atera ditzakegu?
3. Aplikagarria al da gizakion ekologiaren kasurako? Garrantzitsuak al gara guztiok ekosistema nagusiak funtziona dezan?
4. Proposa itzazu zeure familia, ikasgela, auzo edo mundu mailatik gizaki eta ekologia orekaren alde burutu daitezkeen jarduera ezberdinak.
5. Ikastetxea girtzeko hausnarketa eta proposamenez kartelak egin.

## Fitxa 2.1.

### Ginknarako probak

- Desagertzeaz dauden animaliak zeintzuk diren jakin.
- Ugaztunek parkean zer jaten duten antzeman.
- Hegaztirik txikienaren lumak marraztu.
- Lur azpian ezkutatzen diren animaliak aurkitu.
- Parkean diren otsoen kopurua.
- Hostoak orratzak bezalakoak dituzten zuhaitzak antzeman.
- Tximinoen zein jokaerak duen gizakion jokaerekin antzekotasunik esatea.
- Zooan animaliek duten banaketaren plano bat egin.
- Lehoien erlazioatzeko moduak imitatu.
- Parkearen ekosistema bat seinalatu.
- Animalia arriskutsuak zeintzuk diren esan.
- Parkean den elikadura katea aurkeztu.
- Taldekideen artean suge bat osatu eta berak egin ohi
- ...
- duen bezala 50 metro mugi zaitezte.



## Fitxa 3.1.

### Animalien Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren gainean hausnarketa eginez ...

- Zein da zure iritzia? Justuak edo gehiegi deritzezu?
- Guztiok ezagutzen al ditugu eskubideok? Eta errespetatu?
- Zer egingo zenuke hausten dituztenekin?
- Eskubide hauekin bat, zoologikoak, akuarioak, zirkoek aginpideak hausten al dituzte? Zer deritzozu?
- Eskubide horiek errespetatzen al dituzte zoologiko, akuario, zirko, ikerketarako laborategiek edo hausten dituzte? Zer deritzozu?
- Eta animaliak edo maskotak dituztenak gatibutasunean edo beirate eta erakusketetan erakusten zituztenak?
- Eskubide horiek errespetatzen al dituzte animalia lasterketek? Azter ezazu zer-nolako jokaerak hartu dituzten herri eta herrialde ezberdinek ikuskizun horien arautegi eta debekuak direla eta.
- Zein alde on du animalien eskubide horiek errespetatzeak? Eta zer dakar edo betebeharrak eskatzen du eskubide horiek betetzeak?
- Egin ezazu etxeko animaliak dituzten pertsonen eskubide eta betebeharren dekalogo bat.

# *Atzerriko hizkuntza*



MUNDUKO  
HIRITARROK



**Alboan**

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA



## Helburuak

- Abesti baten ahozko ulermena zein idatzizkoa lantzea.
- Ingelesezt edo frantzesetz idatziz adierazteko trebetasunak garatzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Why?”

**Deskribapena:** Tracy Chapman-en abesti baten gainean egingo da lan.

Taldearen mailaren arabera, abestiaren hutsuneak bete edo abestiaren hasiera eta amaierak lot ditzaten eska dakieke.

Ulertzen ez diren hitzen esanahia emango da. Taldeka, abestian giza eskubideei, hautsi edo betetzen ez direnei erreferentzia egiten dieten gai ezberdinak seinatzeko eskatuko zaie. Behin taldean seinatuta, beraien ustez garrantzitsuak izan eta familian, ikastetxean, auzoan edo munduan betetzen ez diren bestelakoak gehitzeko eskatuko zaie.

Talde bakoitzak aukeratutako eskubideak aurkeztuko ditu eta zeintzuk ez ohi diren betetzen euren ikastetxean, auzoan edo mundu mailan esango dute. Panelak gelan aurkeztuko dira.

Hurrengo egunerako, gai konkretu zein orokor baten gainean ikasgelan, auzoan edo mundu mailan sustatu beharreko betebeharrei buruzko idazlan bat egin beharko da.

Idazlanak zuzendurik banatzen diren egunean, idazlanetan atera diren proposamenak komunean jarri eta gela legez deklarazio bat egin daiteke.

**Materiala:** Abestia, musika aparailua, abestiaren testua (fitxa 1.1.) eta kartulinak.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

## 2 Jarduera:

### “Déclaration”

**Deskribapena:** Georges Moustaki-ren abesti baten gainean egingo da lan.

Taldearen mailaren arabera abestiaren hutsuneak bete edo abestiaren hasiera eta amaierak lot ditzaten eska dakieke.

Ulertzen ez diren hitzen esanahia emango da. Taldeka, abestian giza eskubideei, hautsi edo betetzen ez direnei erreferentzia egiten dieten gai ezberdinak seinalatzeko eskatuko zaie. Behin taldean seinalatuta, beraien ustez garrantzitsuak izan eta familian, ikastetxean, auzoan edo munduan betetzen ez diren bestelakoak gehitzeko eskatuko zaie.

Talde bakoitzak aukeratutako eskubideak aurkeztuko ditu eta zeintzuk ez ohi diren betetzen euren ikastetxean, auzoan edo mundu mailan esango dute. Panelak gelan aurkeztuko dira.

Hurrengo egunerako, gai konkretu zein orokor baten gainean ikasgelan, auzoan edo mundu mailan sustatu beharreko Betebeharrei buruzko idazlan bat egin beharko da.

Idazlanak zuzendurik banatzen diren egunean, idazlanetan atera diren proposamenak komunean jarri eta gela legez deklarazio bat egin daiteke.

**Materiala:** Abestia, musika aparailua, abestiaren testua (fitxa 2.1.) eta kartulinak.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

## Fitxa 1.1.

### Match the beginnings and the endings of the following questions

Why do the babies starve  
Why when there´re some many of us  
Why are the missiles called peace keepers  
Why is a woman still not safe  
when they are aimed to kill?  
when there´s enough food to feed the world?  
when she is in her home?  
are there people still alone?  
Love is hate  
War is peace

No is yes  
And we are all free  
But somebody´s gonna have to answer  
the time is coming soon  
Amidst all the questions and contradictions  
there´re some who seek the truth  
But somebody´s gonna have to answer  
the time is coming soon  
When the blind remove their blinders  
and the speechless speak the truth.

## Fitxa 2.1.

### Abestia: Deklarazioa

Je déclare l'état de bonheur permanent  
et le droit de chacun à tous les privilèges  
je dis que la souffrance est chose sacrilège  
quand il y a pour tous des roses et du pain blanc

je conteste la légitimité des guerres  
la justice que tue et la mort qui punit  
les consciences qui dorment au fond de leur lit  
la civilisation au bras des mercenaires

je regarde mourir ce siècle vieillissant  
un monde différent renaîtra de ses cendres  
msi il ne suffit plus simplement de l'attendre  
je l'ai trop attendu je le veux à présent

que ma femme soit belle à chaque heure du jour  
sans avoir à se dissimuler sous le fard  
et qu'il ne soit plus dit de remettre à plustard  
l'envie que j'ai d'elle et de lui faire l'amour

que nos fils soient des hommes non pas des adultes  
et qu'ils soient ce que nous voulions être jadis  
que nous soyons frères comarades et complices  
au lieu d'être deux générations qui s'insultent

que nos pères puissent enfin s'émanciper  
et qu'ils prennent le temps de caresser leur femme  
après toute une vie de sueur et de larmes  
et des entre-deux-guerres qui n'étaient pas la paix

je déclare l'état de bonheur permanent  
sans que ce soit des mots avec de la musique  
sans attendre que viennent les temps messianiques  
sans que ce soit voté dans aucun parlement


je dis que désormais nous serons responsables  
nous ne rendrons de compte à personne et à rien  
et nous transformerons le hasard en destin  
seuls à bord et sans maître et sans dieu et sans  
diable

et si tu veux venir passe la passerelle  
il y a de la place pour tous et pour chacun  
mais il nous reste à faire encore du chemin  
pour aller voir birller une étoile nouvelle

je déclare l'état de bonheur permanent

Georges Moustaki

# *Erljioa*



## Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Norberak bizi duen errealitatearen gainean hausnartzea.
- Gainontzeko ikasleekin esperientzia eta sentimenduak konpartitzea.
- Pertsona izateagatik dugun gure duintasun eta balioaz kontziente egitea.
- Ospatzea Jesusek baloratu egiten gaituela, duin bihurtu eta askatzen gaituela oso.
- Eskubide eta betebeharren inguruan lanean izan den denboran zehar aurkitu, ikasi edo bizi izandakoaren alderdirik nabarmenenak otoitzetara eraman.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: “Pertsona guztiok gara protagonista”

**Deskribapena:** Komunikazioa erraztuko duten talde txikietan, geure bizitzetan protagonista izateko gai izan gaitezen baloratuta sentitzearen gaineko hausnarketa egingo dugu. Jesus ezagutzen saiatuko gara duin bihurtu eta morroitzat orotik askatzen gaituena legez, gure garapena oztopatzen duen morrontza, eta hortaz, besteengana berdintasunean hurbiltzeko gaitasuna ematen digu.

Taldeak egingo ditugu esperientzia eta sentimenduak libreki adierazteko behar den askatasuna sentitzen duten pertsonekin.

Gaiari sarrera emateko, oinarrizko emozio beharrei buruz hitz egingo dugu, balorazioari buruz, nork bere burua eta besteak onartzeaz, maitasuna, errekonozimendua, ekintza askatasuna, duintasuna, bakoitzaren indibidualtasuna.

Ondoren proposaturiko galderak egiten zaizkio taldeari (fitxa1.1.). Galdera bakoitzaren ostean hausnarketarako denbora tartetxo bat izango da eta gero, betiere talde txikietan, erantzuteari ekingo zaio.

Talde bakoitzari kartulina bat emango zaio, errotuladoreak eta taldea osatzen duten pertsona kopuruak beste koloredun pegatinak, pertsona bakoitzari kolore bereko hiru pegatina eman-  
go zaio.

Kartulinan ertzean 1 zenbakia, erdian 5a eta 10 bat beste ertzean duen lerro bat marraztu ostean, bakoitzak eskala horren zein tokitan kokatuko lukeen bere burua, familiar, ikasgelan eta lagunen artean egonda, pentsatuko dugu. Bat zenbakiak gutxi baloratua den pertsona adierazten du, mesprezatzen dena eta autoestimu gutxi duena. 10ak bere buruarekin gustu-  
ra sentitzen den pertsona adierazten du, dena eta egiten duenagatik atsegin dutela pentsatzen duena, kontuan hartzen dutena. 5. bere buruarekin ez oso ondo ezta oso txarto ere sentitzen den pertsonaren lekua da, baina berarengan mespretxu handirik sentitzen ez dela uste duena.

Pertsona bakoitzak pegatina batean familia hitzeko F-a idatziko du, "klase" hitzako K-a eta L "lagun" hitzarena. Isiltasun minutu batzuen ostean, bakoitzak bere pegatina egokia dela uste duen lekuan jarriko du.

Ondoren, eta talde txikietan, dinamika komentatu egingo da; zergatik jarri naiz hor?, merezi dudan lekuan nagoela uste dut?, zergatik?, nire taldeko baten bat ikasgela barruan beste leku batean jarriko nuke?, zergatik? nola sentitu naiz dinamika hori burutzen?

**Materiala:** Kartulinak, errotuladoreak, musika, pegatinak, fitxa 1.1.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bat.

## 2 Jarduera: “Zeintzuk dira gure eskubide eta betebeharrak?”

**Deskribapena:** Aurreko jarduerari berriro helduta, Juanen 4,1-14 testua (bere ordezkariak erabil daitezke: Jn 5,5-18, Jn 8,1-11, Lc 7,11-17, Lc 15,25-32, Mc 7,31-37) hartuko dugu. Batzuen artean irakurriko eta jarraian fitxa 1ean diren galderi erantzuten ahaleginduko gara.



Taldean landutakoa komunean jarriko dugu.

Amaitzeko, jarduera honetan eta aurrekoan izan den garrantzitsuena jasoko dugu esaldi batean, eta lantzen aritu garen gaietan presente izan diren pertsona guztiei helaraziko diegu: familia, lagunak, adiskideak, gaixoak, inmigranteak, ...

Otoitz egingo dugun lekua zaindu eta girotu egingo dugu.

Borobilean jesarriko gara, erdian kartulina zuri bat eta errotuladoreak jarriko ditugu.

Musika eziaz lagunduta, gutariko bakoitzaren erreferentzia egiten duen samariarraren testua irakurriko dugu. Bertan diren pertsona guztien izenak egon beharko dira. Pertsona bakoitzak ondoan duenaren izena esan dezake edo erdiko kartulinan izena jarri. Isiltasun une labur batez, talde bakoitzeko pertsona batek erdian eskala duen kartulina jarriko du.

Bigarren saioan, berriro taldetan bildu eta testu labur bat egingo da egoera eguneratuz. Talde batzuek testuan Jesusen elkartzea antzeztuko dute gutako batekin eta beste batzuek aurreko galderan edo beste arlo batzuetan eginiko lanean ateratzen joan diren pertsona eta elkar-teen elkartzea. Elkartze lekua aldatuko dugu eta parte hartzen duten pertsonak eta oinarrizko ideia gordeko dugu. Jesus pertsona bakoitzarengana hurbilduko da, denagatik baloratuko du eta berarekin duen harremanak duin bihurtuko du, beldurtu eta gainditu nahi duen orori aurre egiten lagunduko du eta bere burua baloratzen eta neurri berean pertsona guztiak duintasunez tratatzeko gaitasunaz hornituko du.

Jarraian, beste pertsona batzuei buruzko testuak irakurriko dira. Irakurri ondoren eta isiltasunean, berez erdiko kartulinak idatziko dira izenak, sentimenduak, egoerak..., asmatu, ikasi edo sentitu dugun esanguratsuen jasoko dutenak eskubide eta betebeharren gaia landu dugun bitartean. Eginiko lanak edo dokumentu garrantzitsuak ere aurkez ditzakegu.

Amaitzeko, guztion artean Fray Bettoren testua (fitxa 2.2.) irakurriko dugu.

**Materiala:** Biblia, kartulinak, errotuladoreak, musika, beste arlo batzuetan erabilitako dokumentuak.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 50 minutuko saio bi.



## Fitxa 1.1.

### Nolakotasunak eta...

- Zure taldea osatzen duten pertsona bakoitzetik zein da gehien estimatzen duzun ezaugarria?
- Erraza egiten al zaigu besteen gaitasunak antzematea? Zergatik?
- Eta neureak antzematea? Zergatik?
- Pentsa ezazu nola hezi zaituzten eta horrek zure bizitzan izan duen eraginean.
- Taldeko kideen artean honako galdera hauen erantzunen berri trukatzeko bikoteak egingo dira:
  - ✓ Nola sentitzen zara maite zaituzten pertsonak baloratzen zaituztenean? Zer esan nahi zenuke une honetan? Zerbaitetan aldatzen al da zure portaera? Eta zure gaitasunak? Zer-nolako ezberdintasunak aurkitu dituzu balorazioa eta onespenezaren artean? Zergatik dira hain garrantzitsuak balorazioa eta maitasunaren agerpena?

## Fitxa 2.1.

### Interpretatu eta interpelatu

- Samariarren ospea kontuan izanik eta gainera emakumea izanik
  - Zein arrazoi uste duzu izan zuela Jesusek berarengana hurbildu eta hitz egiteko?
  - Nola tratatzen du?
- Saia zaitez gogoratzen zein beste pertsona hurbiltzen den Jesusengana. (Beharrezkoa dela uste izatekotan, Marcosen Ebangelioaren birpasa egin daiteke denbora une labur batez. Talde bakoitzak kapitulu batzuk birpasatu eta Jesusekin harremana duten pertsonen profila aterako du.)
- Testua eguneratzen badugu, zein pertsona jarriko zenuke samariarraren lekuan? Zergatik?





## Fitxa 2.2.

### Fray bettoren testua

*Pertsona guztiak libre jaio gara eta berdinak gara duintasun eta eskubideetan.  
Guztiok dugu bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonal eta soziala izateko eskubidea.  
Guztiok dugu gure etxebizitza, familia eta ohorea babesteko eskubidea.  
Guztiok dugu lan duin eta ondo ordaindua izateko eskubidea.  
Guztiok dugu atsedeen, aisialdi eta oporretarako eskubidea.  
Guztiok dugu osasunerako eta mediku eta ospitaleen asistentziarako eskubidea.  
Guztiok dugu heziketa, eskola, arte eta kulturarako eskubidea.  
Guztiok dugu haurtzaroan eta zahartzaroan babestuta egoteko eskubidea.  
Guztiok dugu herri antolakuntza, sindikala eta politikarako eskubidea. ,  
Guztiok dugu gobernuaren funtzioetarako aukeratu eta aukeratuak izateko eskubidea.  
Guztiok dugu benetako eta zuzena den informazioa izateko eskubidea.  
Guztiok dugu aske ibili eta beste hiri eta herrialde batera bizitzera joateko eskubidea.  
Guztiok dugu diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea,  
Inork ezin du torturarik pairatu.  
Guztiok gara berdinak legearen aurrean.  
Inork ezin izan daiteke edozein modutan preso hartua izan ezta bere burua defendatzeko eskubidea ukatua izan ere.  
Guztiok gara errugabe Justiziak, legean oinarrituta, kontrakoa frogatu arte.  
Guztiok dugu pentsatzeko, adierazteko, biltzeko eta sinisteko eskubidea.  
Guztiok dugu maitasuna eta bere fruituetarako eskubidea.  
Guztiok dugu komunitatearen eskubideak errespetatu eta babesteko eskubidea.  
Guztiok dugu eskubide hauek lortu eta zabalitzeko eskubidea.*

*Fray Bettoren herri bertsioa  
Agenda Latinoamericana'97, 1.or.*



# *Mamematika*



MUNDUKO  
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO  
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

## Helburuak

- Lurraldean desorekaren zentzu kritikoa ezagutzea aberastasunaren banaketari dagokionez.
- Gutxiago dutenen alde zerbait uko egitearen konpromisoa estimatzea.
- Nazioarteko informazio iturriak bilatu eta erabiltzea.
- Datu estatistikoaren ondorioak burutu, interpretatu eta ateratzea.
- Publikoaren aurrean ikerketa estatistiko batetik ateratako emaitzak aurkeztea.
- Datu estatistikoak erreferentzia egiten dioten errealitatearekin lotzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera:

#### “Zeri gaude uko egiteko prest”<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Ikasgela talde bitan banatuko da; talde batek "garatuta dagoen Iparraldeko" herriak aurkeztuko ditu eta besteak "garatzen ari diren Hegoaldekoak". (Taldea biek aztertuko dute Giza Garapenaren Txostena (<http://www.undp.org/hdr2001/spanish/>) eta Munduko Bankuarena (<http://www.worldbank.org/poverty/spanish/wdrpoverty/>)<sup>2</sup>. Aztertzeaz gain, datu horien arabera zeintzuk eskubide ari diren hausten aipatzeko eskatuko zaie, zenbat herritarrei ukatzen zaizkien, zein neurritan, zein den moda, kasu bakoitzerako desbideratzea, etab.

Komunean jarri eta ostean eskatuko zaie, eskubide horiek errespetatuak izan daitezzen zein bete beharra bete behar dugun proposa dezaten (datu konkretuekin argumentatuz). Talde bakoitzeko arduradun batek klase osoari azalduko dio beraien ondorioak zeintzuk diren.

Amañutakoan, Garapenerako Eskubidearen Deklarazioa emango zaie ([http://www.unhchr.ch/sp\\_anish/html/menu3/b/74\\_sp.htm](http://www.unhchr.ch/sp_anish/html/menu3/b/74_sp.htm)). Behin hori dutela, garapenerako gastuen datuekin (Internetek

<sup>1</sup> GIL, F, JOVER, G. y REYERO D., etik egokitua La enseñanza de los derechos humanos. 30 preguntas, 29 respuestas y 76 actividades. Ed. Piados, Barcelona 2001, pág. 177.

<sup>2</sup> Gobernutik kanpoko bestelako iturriak erabil daitezke, esaterako Guía del Tercer Mundo. <http://www.guiadelmundo.org.uy/>



ateratako urteko laguntzen errealitatearen gaineko txostenak edo <http://www.intermon.org/docs/41.pdf> edo <http://www.eurosur.org/futuro/fut78.htm>) irakasleak bideratuko duen honako debatean parte hartzeko eskatuko zaie:

- Eraginik al du nigan nire herriak garapenean laguntzeko fondoak handitzeak?
- Nire gurasoek zerga gehiago ordaindu beharko dute?
- Zeri nago uko egiteko prest oreka handiagoa lortzearren familia, eskola, auzoan edo munduan?
- Gauza gutxiago izango dut nik edo guztiok gehiago?

**Materiala:** Internetetik aterata edo PNUD-en Giza garapenari buruzko Txostena (urtekoa) eta Intermoneko urteko txostenak “Laguntzaren ebaluazioa”.

**Dinamika:** Banaka eta taldeka.

**Iraupena:** 60 minutuko saio bi.

**Iradokizunak:** Honen aldaera bat mundu, estatu (Txirotasun Txostena: <http://www.caritas.es/>) eta herri mailako txostenekin lan egitea da eta txirotasun kausak eta aplikatu beharreko neurriak konparatzea. Datu horiek guztiak **AIboan**-ek eman ditzake.

## 2 Jarduera: “Teknologiarako aukera, gure eskubideak erabili ahal izateko adierazlea ”

**Deskribapena:** Teknologiarako aukerak garapena ahalbidetzen du, eta sarritan zalantzetan jartzen diru pertsonen eskubideak gaurko testuinguruan (informaziorako eskubidea, jabego intelektualerako eskubidea, etab). Nazio Batuetako Programak eginiko azken txostenean horren inguruko analisisia egiten da. Proposamena bertan azaltzen diren datuen gainean hausnarketa egitea da. Hasiera batean, taldeka, garapen teknologikoaren Indizearen datuak emango zaizkie (<http://www.undp.org/hdr/2001/spanish/> Giza Garapenerako Txostena 2001, 2.kapitulua, 50-53 orr.). Indizea nola egin den asmatzeko eskatuko zaie eta lortutako datuak aurkezteko (daudenak eta ez daudenak) grafiko batzuetan. Ondoren, irakasleak txosten berean den indizea nola egin den azaldu ahal izango du, 48-49.orr. Azkenik, Giza Garapenerako Indizeko datuak emango zaizkie eta indize bietako datuekin (giza garapena eta teknologikoa) errealitate hau



islatzen duen indize berria egiteko eskatuko zaie (beraiek uste duten arreta emanaz). Egiteaz gain, herriak sailkatu beharko dituzte beraiek landutako irizpideen arabera gutxi gorabeherako neurri gisa moda, erdibidekoa, ohiko desbideraketa, etab. Oraingoan munduko mapa batean aurkez dezakete... Talde bakoitzaren emaitzak azalduko zaizkio klase osoari. Eta mapa eta datuak ikusita pertsonen eskubideak ahalbidetu edo mugatzen dituen bitarteko legez eztabaida gaitzke teknologiar buruz. Talde bakoitzaren emaitzak azalduko dituzte.

- Materiala:** Teknologia Aurrerapenaren Indizeko datuak, Giza Garapenerako Indizea, kalkulagailua, kartulinak eta errotuladoreak.
- Dinamika:** Taldeka.
- Iraupena:** 60 minutuko saio bi.
- Iradokizunak:** Behar diren dokumentuak Interneten aurki daitezke edo Giza Garapenerako Txostena 2001ean. **Alboan**-en ere eska daitezke. Informazioa osa daiteke teknologiar buruzko munduko mapa interaktiboa ikusita eta aurretiaz aipatu den web orrialdeko inkestarekin.